



EUTR AGENTEENTZAKO KONTROL-PROGRAMA AUTONOMIKOA

2017. URTEA ETA HURRENGOAK

Euskal Autonomia Erkidegoan merkaturatzen den zuraren legezkotasuna Kontrolatzeko Plan Nazionalaren arabera, guztira 20 kontrol egin behar dira: 3 kontrol egingo zaizkie 1. eta 2. agenteei eta 17 kontrol egingo zaizkie 3. eta 4. agenteei.

Kontrolak modu horretan banatu dira enpresen kopurua kontuan hartuta eta sektore horiek EAEn duten garrantzia kontuan hartuta.

Irizpide jakin batzuk aplikatuko dira, eta ordena jakin batean, kontrola egingo zaien enpresak aukeratzeko:


1. eta 2. agenteentzako irizpideak:

- 2017. urtean Erantzukizunpeko Adierazpena aurkeztu ez izana.
- Aurkeztu den Erantzukizunpeko Adierazpenean akatsak egotea.
- Elkartuta ez egotea.

3. eta 4. agenteentzako irizpideak:

- SOIVREk bidalitako zerrendan ez agertzea inportatzaile moduan eta Erantzukizunpeko Adierazpena aurkeztu ez izana.
- Aurkeztu den Erantzukizunpeko Adierazpenean akatsak egotea.
- Aurkeztutako Erantzukizunpeko Adierazpenetan, aitortu diren merkaturatutako produktuen datuak:
 - Jatorrizko herrialdea
 - Espezieak
 - Izaera
 - Merkaturatutako produktuen pisua

Kontrolen prozedurak:



Kontrolen kronologia:

1. Maiatza, ekaina, uztaila eta iraila bitartean kontrolak prestatuko dira.

Kontrola egingo zaien enpresak aukeratuko dira, agente mota eta adierazitako irizpideak aintzat hartuta.

Informazioa eta dokumentazioa eskatzeko gutunak bidaliko dira.

Jasotako dokumentazioa berrikusiko da.

Informazio eta/edo dokumentazio osagarria eskatzeko gutunak bidaliko dira.

Agente bakoitzak emandako dokumentazio guztia aztertuko da.

Zein kontrol mota egin aukeratuko da.

2. Ekaina, uztaila, iraila, urria, azaroa eta abendua bitartean kontrolak egingo dira.

Enpresek emandako dokumentazioa jaso eta aztertu ahala egingo dira.

Halaber, kontuan hartuko dira enpresek kontrolak in situ egiteko aukera ematen duten eta kontrolak egingo dituzten funtzionarioen lan-karga zein den.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 16a